

ama ta aitaita negar samiñez lertzen
ziran bitartean.

Benetan negar garratza. Arrantzu-
ariora joan ziranak gizonei bi zirala
esan zeikean, onen azkar ta bulartsu
bai-cutsan eragiten arraunari aitaren
alboan ;haña oindinño urte gitxiko
zan ;eta, ai! umezurtz maillan ja-
rria gaurtik. Zoritzarrez ezta beste-
rik adusak umezurtz biurru dauen
mutiko itun naigabetsu baño.

Ixil ta minbera, urten zan ureta-
tik. Oi, zelako ixila! Ikaragarria be-
ne-benetan, gabai-garazi ta Ibik'en
arraun klask!, klask!, neurtuak, ne-
kez austen ebena.

Astiro bide egin eban crizerantz,
nozik-bein atzera begiraturik, aita
ondorik ez etorkon jakin naien.

Liorrera zan azkenez. Txabolari ~~ja~~
nak ziran ama ta aitaita; negar egioz
an atsekabez josita, zelaian iraulka.

Atara eban Ibik'ek, alak eginda,
uretatik bere kajak astuna, ta bereala
txabola barruan egozanakana zu-
zendo zan.

Arrezkero bide bat geratzen zan
bakarrik: otoiota.

Ez cutsen ezer esan; eurak be ba-
ekien zer jazo zan, obeto cziñean
ikusi eben, ba, aitari gertauriko guz-
tia. Ez, ezin ezer barrirrik geitu.

Dansak batera negarrez otoiitz erdi
ebagiak marmarka aoan. Jaungoi-
kosgana jaso ebezan bietzak, erruki-
tanta ta poz-izpi batzuen eske.

O.

ARTZAIN GAZTEA

Artzain gaztea
zauri gorritan,
inka bizitan
daukagu.
Esaizu, arren;
txoriak kantuz...
errekok saltuz...
zer dozu?
Uda eliztean
oro kantari;
artzainña orla
negarez?
Miñez josita
muiño ertzean,
geriza-pean
zotinez!
Maitasunaren
dardai zuria
—oso bizia!—
barnean.
ai-ene baten

orra, nun dogum,
gau eta egun
guztian.
Lizarrak sakon
intziraz dira;
ostoz aizca,
orobat:
artzainña ikusix
negar-jario,
ai-otsak eio
arentzat.
Ixillik, arren!
txori ta muiño.
beder ta pago:
ixillik
Artzain gaztea
orrela ikusiz,
maitasun-dardaiz
mindurik...

O.